



ESKORIATZA

ZE BARRI?

URLATIK • LANDETARA



GATZAGA

19. Alea 1998ko Apirila



- **Elkarrizketa** : Asun Garai talogintzako irakasle.

- **Sergio Frutos**, Eskoriatzan dugun txirringidularirik onena.

- Aitzorrotzeko eguna maiatzaren 3an .

Etorkizuneko **udaletxe**
euskalduna lantzen

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 714407
 Udal Bulegoak 714532
 Udaltzaingoa 714407
 Euskaltegia 792168
 Kultur-Etxea 714688
 Gizarte-Laguntzailea 714688
 Kiroletxea 715328
 Liburutegia 714688
 Luis Eceiza 714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486
 Almen 714964
 Museo-Eskola 714688
 Ze Barri 714077
 Talde Antimilitarista 715028
 Irakasle Eskola 714157
 Osakidetza 714452
 Telesko 714917
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800
 Renfe (Zumarraga) 721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 088

ZE BARRI?

Argitaratzailea:
AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Lourdes Martinez.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1.500 ale

“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”



ESKORIATZAKO UDALA
 Euskara Batzordea

Aldizkari honek Udaletxearen laguntza jasotzen du

ASUN GARAI

Talogintza ikastaroaren arduraduna



1-Noiztik dakizu taloak egiten?

Txiki txikitatik , nire amak erakutsi zidan.

2-Zer behar da taloa egiteko?

Arto- irina , ura , gatza eta besterik ez.

3-Urte osoan zehar egiten da, edo horretarako garai aproposa dago?

Nik etxean beti neguan egiten dut eta kalean jaietan.

4-Euskadin leku guztietan berdin egiten da?

Bai , nire ustez bai.

5-Etxean sarri egiten duzu?

Neguan bai.

6-Beste ikastarorik eman duzu?

Talo ikastaroaz aparte larrua lantzekoak, eta jubilatuekin ere lan asko egiten dut.

7-Zertan erabiltzen duzu zure aisialdia?

Kirola (aerobik) , paseuak , eskulanak eta orain ilobarekin ere egoten naiz

8-Zer aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?

Herritarren beharrak eta iritzia gehiago hartuko nituzke kontuan.

9-Zer iruditzen zaizu " ZE BARRI " aldizkaria?

Oso ondo, baina nahiko motza.

**1-Zer iruditzen zaizu Elgeako parke eolikoa?
 2-Zergatik?**



Maider Lamarain

1-Txarto, baina ez nago ondo informatuta.
 2-Uste dut ez duela ezer berezirik ekartzen.



Claudio Blazquez Martin

1-Energia aurrezteko bada ondo dago, baina ingurugiroari kalterik egin gabe.



Jaione Enekotegi

1-Txarto.
 2-Mendia (paisajea) estropeatzen duelako.



Iñigo Viteri eta Manuel Blanco

1-Ondo dago energia iturriak aurrezteko, baina mendia motorrak eta animaliak ibiltzeko da eta ez ertzainak eta hainbeste teknologia.



Joseba Zubia Fdz. de Landa

1-Energia alternatibo bezala ondo, baina inpaktu ambiental nahiko txarra.



Xabier Pierrugues

1-Ondo iruditzen zait.
 2- Energia ateratzeko modu ona eta naturala da, baina ingurune-inpaktua nahiko txarra da.

Sergio Frutos Eskoriatzan dugun txirrindularirik puntakoena

Azken bi urteak Arrasateko Afizionatu mailako *Born-Jay* taldean korritzen aritu ondoren, Eskoriatzan daukagun txirrindularirik puntakoena, Sergio Frutos-ek, Nafarroa aldera egin du salto, Iruñako ACR taldearekin helburu eta garaipen berrien bila. 20 urte ditu, eta Batxilergo teknikoko ikasketak egiten ari da Arrasateko Eskola Politeknikoan. Txikitan, krossean aritzen zen garaian, Sabino Padillak korrika egiteko gaitasuna zuela esan zion arren, berari txirrin- dularitza da gehien gustatzen zaiona, eta horretan saiatzen jarraitzeko asmoa dauka gainera, profesioaletara pasatu, edo zergatik ez, Tour bat irabaztearen ametsa egi bihurtu arte. Bere aita Joseren ustez, erregularitatea eta konstantzia dira Sergiok bere helburuak lortzeko dituen armak.



Zer moduz Iruñean?

Oso ondo. Giro polita dago taldean, eta afizionatu mailako ekiporik indartsuenetako bat da ACR. Estatu mailako lasterketa gehienetan hartuko dugu parte, eta aurten 17 bira inguru korrituko ditugu, Bidasoa, Nafarroa, Extremadura eta beste hainbat lekutan.

Zeintzuk dira aurten dituzun helburuak?

Denboraldi ona egitea.

Eta zein lasterketa gustatuko litzaizuke irabaztea?

Nire herria delako, Eskoriatzan San Pedrotan korritzen dena.

Zer moduz joan zitzazun izazko denboraldia?

Batez ere denboraldi bukaeran ibili nintzen ondoren. Laukinizen korritutako lasterketan zazpigarren pos-

tuan sartu nintzen helmugan.

Zein da aurten daukaguzuen probarik garrantzitsuena?

Eibarko Balentziaga memoriale. Apirilaren 5ean ospatu zen.

Zenbat kilometro egin zenituen joan zen denboraldian?

20.000 inguru. Lasterketa normal baten 120 eta 140 bat km egiten ditugu, eta klasikak luzeagoak izaten dira, 160 km ingurukoak.

Orain arte korritu dituzun probetatik, zein izan da gogorrena zuretzat?

Euskadiko Txapelketaren barruan korritu zen proba batean izan zen. Murgian hasi eta Oroko Santutegian

bukatu zan lasterketa, eta oso gutxi bukatu genuen lasterketa hori. Aimar Zubeldiak irabazi zuen.

Eta zer moduz doa hasi berri duzuen denboraldia?

Ondo, orain arte pelotoiarekin batera ibili naiz.

Txirrindularitzaz aparte, ze zaletasun dituzu?

Lehen atletismoa gustatzen zitzaidan, eta futbola ere gustatzen zait. Kirolaz aparte, musika entzutea ere gogoko dut.

Nor da gehien miresten duzun txirrindularia?

Rominger, oso korredore kompletoa delako.

Eta euskaldunen artean?

Zarrabeitia, oso konbati-boa delako.

Eta afizionatu mailan, ze txirrindulari destakatuko zenuke?

Baque-ko Igor Astarloa. ACR-n Ruben Diaz de Cerio errioxarra dabil oso ondo.

Zer moduz ikusten duzu profesioaletara pasatzearen kontu hori?

Zaila da, maila oso ona dago gaur egun afizionatutan, baina saiatzen ez bada, ez da ezer lortzen.

Korritu al duzu inoiz profesionalekin batera?

Bai, Aretxabaletako kriterium-ean. Fede Etxabe, Gonzalez de Galdeano anaiak, Jon Odriozola, Aitor Garmendia eta beste hainbat txirrindulari egon ziren bertan. Ilusio handia egin zidan beraiekin korritzeak.

Bukatzeko, zer pentsatzen da 90kilometro orduko abiaduraz portu bat jeisten denean?

Bi gauza pentsa daitezke: "Ea aurrean doazenak harrapatzen ditudan", edo "ea atzetik datozenek ez nauten harrapatzen".

"Erregularitatea eta konstantzia dira Sergiok helburuak lortzeko dituen armak".

A B
aholkulariak

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA
ASEGURUAK**

ALDETEC

**TASAZIOAK
PERITAZIOAK
PROIEKTU ING.
OBRA ZUZENDARITZAK
ERREFORMAK**

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

Gastañadui, 7 - bajo
Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 943 71 54 36 **20540** **ESKORIATZA**

EUSKERAREN ERABILERA PLANA GAUZATUZ UDALETXEAN

1997an ikusi zen euskararen norma-lizaziorako bigarren plangintza honekin hasteko momentu egokia zela, udaleko langile gehienek zegokien hizkuntza eskakizuna lortua baitzeukaten eta ia politiko guztiak euskeraren ezagupen maila egokia baitaukate. Helburua, euskara udalaren zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izatea denez, euskeraz jakin badakiten udaleko langileei, herritarrok eta baita politikoek ere laguntza handia emango diegu beraiengana euskeraz zuzentzen bagara.



Zertan datza euskeraren erabile-ra plana?

Administrazioaren edo udalaren euskalduntze planean kokatu behar da. Honek garantizatu behar du herritarrari euskeraz zerbitzua eskeintzea. Horretarako, langilegoa euskaldundu beharra dago, fase hau 1995ean amaitu zen eta orain bigarren plangintza gauzatzen ari gara, ikasitako euskara erabiltzea baldin-tzatuko duena.

Aurreko plangintza noiz hasi zenuten?

1989an perfilak zehaztu ziren, beraz, orduan ekin zitzaiola esan genezake. Bukatu berriz, 1995eko uztailen.

Helburuak lortu al dira?

Baietz esan genezake. 1995ean bukatu zen plangintza hori eta gero bitarteko epe bat egon da 97 arte. 13 langiletik 4 bakarrik dira dagokien hizkuntza maila lortu gabe dutenak. Horregatik, langile gehienek perfila lortuta daukatenez, 2. plangintzari ekiteko momentu egokia zela erabaki zen.

Euskeraren erabileraren 2. plan-gintza hau gainera, ez dago udale-txeko langileei zuzenduta soilik ezta?.

Ez, langileez gain plangintza honek politikoak ere kontutan hartuko ditu, eta hau oso garrantzitsua da. Politikoek alde batetik, langileak motibatzen dituzte euskera erabiltzera eta bestetik, euskera egunero erabili ahal izateko traba ez izaten lagundu behar dute. Politikoak idazkiak, txostenak... euskeraz onartzen baditu edo eta eguneroko lanean euskera erabiltzen badu, udaletxeko langileak euskera erabiltzeko arazorik ez du izango eta horrek mesede handia egingo dio.

Zein da egun duzuen egoera?

Teorian aurreko helburuak bete dira. Orain berriz, politikoek planarekin bat egitea lortu da, beraz, hori positiboa da. Eta langileen aldetik orokorrean jarrera ona dago. Zaila da guzti hau aurrera eramatea, horretan konsziente gara. Langileak sarri presaka dabilta eta gainera, euskera erabili behar izateak ahalegin extra suposatzen du. Jendea ohitzea zaila da.

Baina ez gara guztiakin batera hasi, batzuk lehentasunezkoak dira eta horien jarrera oso ona da. Lehentasunezko lanpostuak erabakitzeko bi gauza izan dira

kontutan: batetik lanpostuaren izaera (jende-aurrekoa, kultura, kirola, ongizatea) eta bestetik langile bakoitzaren euskara maila.

Datoren urtean legealdi aldaketa egongo da eta alderdikide berriak sartuko dira udaletxean. Nola aurre egingo dio plangintzak guzti honi?.

Bai egia da honek guztiak aldaketak ekarriko dituela, beraz, alderdikide berriekin bilera batzuk egin beharko dira. Printzipioz, euskerarekiko sentsibilizazioa izatea eskatuko zaie, nahiz eta gero, euskalduntze mailak nolako izan behar duenez zehaztu.

Erabilera-plana aldagarria da. Orain jartzen diren helburuak dagoen egoerarako baliagarriak izan arren, agian datorren legealdirako moldatu egin beharko dira. Idealena litzateke moldaketak aurrera segitzeko baliagarriak izatea.

Zein da plangintza berriaren helburua eta zein epetan gauzatzeko asmoa dago?.

ANGEL Aseguroak

Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...

Arana, 19 Behea • Tf. 943-715203 • ESKORIATZA



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.


- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Tfnoa-Faxa: 714845
ESKORIATZA

Helburua da, udaletzeko langileek ez bakarrik euskeraz jakitea, baizik eta euskera beren eguneroko lanean erabiltzea. Hau da orain bete nahi dena.

Plan hau 3urtetan gauzatzeko asmoa dago. Hala ere, EAEko udaletxeak egoera ezberdinetan aurkitzen dira eta Eusko Jaurlaritzaren ere, orain hasi da lanerako dokumentazio baliagarria prestatzen.

Azpirarragarria da, Eskoriatzako udala plangintza honetan sartzen lehenetarikoa izan zela, horregatik orain erdibidean



gaude, Eusko Jaurlaritzatik zer jasoko itxaroten. Lanean ari gara, baina egin zitekeen guztia egin gabe daukagu.

Zein zailtasun aurkitzen duzu?

Hasteko, administrazioeko euskera eta hizkera bera. Kaleko hizkerarekin alderatuz ezberdina da oso. Askotan erderazko hizkuntza ponposoa itzuli nahian, euskal kutsurik gabeko idazkiak ateratzen dira. Bestalde, langileak gaztelera (joserak eta formak) erabiltzeko duen ohitura ere arazo pisutsua da. Presaka aritzeak ere zaildu egiten du hau guztia.

Parte hartzaileen aldetik ze borondate ikusten duzue?

Langileen aldetik orokorrean borondate ona dago. Guzti honek ahalegin handia eskatzen du, gu geu ere horretaz kontziente gara. Gauza handiak lortzeko pauso

txikiak emanez jo behar da aurrera, eta horretan ari dira. Dena dela, administrazioan edo udalean euskerak ez du lehen tasunik, honen alde egitea ondo ikusita dago, baina ez du prioritatearik.

ra egoera?

Ezagutza aldetik euskera maila egokia dago, jendeak badaki euskeraz, baina erabilera aldetik egoera kaxkarra dugu.

URRATSA	DERRIGORTASUNA	LORTU	
4.a	1	0	
3.a	6	6	(2k 4.a ere bai)
2.a	4	1	1 salbuetsita adinagatik 2 euskalduntzeke
1.goa	2	1	1 euskalduntzen

Plangintza honetatik aparte, herriari zuzendutako beste euskera bultzatzeko plangintzarik badauka udalak?

Plangintza konkreturik ez dago, baina proposamen batzuk egon badaude (merkataritza eta kirol alorretarako). Orain arte udaletxe barrura begira lan egin dugu, euskeraren erabilera plana ere udaletxeari dago zuzenduta. Zerbait egin beharko lituzateke kontua ez baita soilik udaletxea euskalduntzea, herriari begira esfortzuren bat egiteak merezi du.

Nola ikusten duzue Eskoriatzako euske-

Erdeldun jendeak piskanaka ikasi du euskeraz, baina sarri euskeraz dakienak erderaz egiten du eta Eskoriatzako horretarako joera handia dugu. Gazteen artean ere, inguruko beste herrietako gazteekin alderatuz, (ikastalde berekoak) Eskoriatzakoek joera handia dute erderaz aritzeko eta hau penagarria da. Sentsibilitate beharra egon badago herri honetan. Elkarteetan ere euskeraren aldeko sentsibilizazio gutxi dago: hizaldiak, ekintzak... gaztekeraz egiten dira. Udalak elkarteak motibatu beharko lituzke beren ekintzatan euskara erabili dezaten.



Euskeraren erabilera plangintzaren teknikaria Maje Umerez dugu. Eskoriatzako bizi den Azkoitar hau euskaltegiko langilea da baina 2.plangintza honen ardura izango du datozen hiru urteetan. Beraz, udaleko langileei eguneroko beharrea euskera erabili dezaten laguntza handia eskeintzeko die.

Zein da plangintza honetako teknikariaren betebeharra?

Alde batetik plangintza bera aurrera eramatea, horretarako, jarraitu beharreko pausuak definitu eta gauzatu. Bestetik, langile bakoitzarekin hartueman zuzena dut, egiten duten lana aztertu eta elkarrekin zuzentzen dugularik. Honi trebatze saioa deitzen diogu. Saio hauetan langilearen idazkiak eta hizketarako darabilzkien formak zuzentzen ditugu. Horrela, langile bakoitzaren eboluzioa gertutik jarraitzen dut zergatiak azalduz, hobetzeko proposamenak emanez... langileek kuadernotxo pertsonal bat daukate, eta horietan jasotzen dituzten langilearen akatsik ohikoenak eta akats horri dagokion azalpena.

BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

VILLAR APAINDEGIA

Tfnoa.: 715042

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA

EROSLE

HARATEGIA,
FRUTATEGIA eta
BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3
Tfnoa: 943 714546

• **Alemanak Eskoriatzan**

Almenen alemana ikasi duten ikasle batzuen etxera erderaz ikasten ari diren alemaniarrek etorri ziren martxoaren 25ean. Hamar egun egin zituzten gure artean, baina Donostia, Gernika eta Gatzagan ere egon ziren eskurtsioan eta Guggenheim museoa ere bisitatu zuten egonaldi hori aprobetxatuz. Esan digutenez, oso gustora egon ziren hemen, eta esperientzia hau berriz ere errepikatuko lukete. Auskalo, agian urte batzutara, euskera ikasteko aitzakiaz, berriz bueltatuko dira Euskal Herria hobeto ezagutzera.

• **Aitzorrotz eguna maiatzaren 3an.**

Urtero bezala maiatzaren lehen igandean ospatuko da Aitzorrotzeko eguna. Bertan, meza eta txistulariak egongo dira eta eguraldiak laguntzen badu egun apartaz gozatzeko aukera izango dugu. Taberna ere egongo da eta bertan salda, txorizoak, edariak... dastatzeko aukera izango dugu. Arratsaldean, berriz, tortilak egongo dira salgai herriko plazan. Ekintza hau aurrera eramateko eskoriatzar guztion laguntza eskatzen da, dela tortilak ekarri edo eta erosiz. Batzen den dirua Eskoriatzako atzeratuen elkarteari eta Aitzorrotz hirugarren mundurako elkarteak Costa de Marfilen egin nahi duen proiektuari laguntzeko izango da.

• **Mendi elkartetik sagardotegira.**

Jada tradizioa bilakatu den sardotegira irtetara apirilaren 5ean izan zen. Pagoeta inguruak bisitatu ondoren bazkari ederra egin zuten.



Gainera, jende gehiago animatu da aurten eta guztiak ere oso gustora ibili zirela, argazkiek aski argi frogatzen dute.



Talde honetatik Eskoriatzan sei aleman izan genituen.

• **Lapurretak Eskoriatzan**

Batorenbatzuk diru gosez lapurretan ibili dira hilabete honetan herriko hainbat komertziotan. Toki alai taberna eta Zubia harategian behintzat sartu dira eta eraman duten bakarra dirua izan da. Lapurrak nortzuk izan diren oraindik ez dakite, baina zihurrenik herri osoaren ahotan dabilen lapurrak kontzientzia ez du lasai edukiko.

Bestalde, polideportiboko lapurra azkenean harrapatu dute. Dirua falta zela eta, markatutako dirua ipini zioten lapurrari zebo gisa, eta baita zepoan erori ere.

• **Eskoriatzar indiano baten bizitza ikertzen.**

EEBBtako Purdue unibertsitateko Charles R. Cutter historiadorea, XVIII.mendearen Mexikora joandako Domingo de Zubia eskoriatzarraren bizitza ikertzen ari da. Irakasle honek, Mexikon beste ikerketa batzuk egiten ari zela Domingo de Zubiari buruzko dokumentu batzuk topatu zituen eta pertsonai interesgarria iruditu zitzaionez, ikertzea erabaki zuen.

Domingo de Zubia Eskoriatzan XVIII.aren hasieran jaio zen. Oraindik gaztea zela Gasteizko familia baten morroi bezela ibili zen. 20 urte zituela Gasteiztik Mexikora jo zuen. Bertan apaiz ikasketak burutu zituen eta Mexikoko Elizan goi mailako postuetara iritxi zen. Baina Carlos IIIak jesuitak Espainiatik botatzea erabaki zuen 1767.urtean eta Domingo de Zubia erabaki honen kontraazaldu zen. Inkisizioak kondenatu eta Mexikoko kartzela baten hil zen. Gaur egungo S.Viator konbentua eraikitzeko dirua ere eman zuen Mondragon Azkarretazabal familiaren laguntzarekin.

Cutterrek, Eskoriatzan aztarna bila aritu zenean esan zigunez, aurtengo udan bukatuko du liburua eta argitaratu berriz datorren urtean egingo da. Orduan izango dugu Domingo de Zubia ezagutzeko aukera.

Cuenta Joven
de Caja Laboral
El servicio
más completo.

**Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuen.**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

GAZTE AGENDA**UDA ABENTURA**

* 14-17 urte duten eta kirol abentura kanpainan parte hartu nahi duten gazteentzat. Aurreiskripzio epea: maiatzaren 12tik 26ra.

* 18-29 urte artekoentzat inskripzioak egiteko kontutan eduki beharreko epeak: ekainak 1ean hasi eta ekainaren 26 arte.

HIZKUNTZ EGONALDIAK

* 14-17 urte bitartekoentzat, Segurako aterpetxean ingeles egonaldiatarako aurreiskripzio epea: maiatzak 12an hasi eta 26 arte.

* 18-29 urte bitartekoentzat epea: ekainaren 1etik 26ra.

IKASTAROAK

* MCCren eskutik, gestio ikastaroak eta praktikak Eroski taldeko supermerkatuetan; ekonomia, enpresa eta marketing tituludunentzat. Epea: maiatzak 30.

BEKAK

* Musika, dantza, antzerkia eta restaurazio arloan espezializazioa burutzeko bekak. Epea: maiatzak 15.

* Arte plastikoa, ikus entzunezkoa, argazkigintza, literaturara eta musika konposaketaren sorkuntza artistikorako bekak. Epea: maiatzak 15.

* "Caixa" Fundazioak, Erresuma Batuan, Alemanian, Estatu Batuetan edo Frantzia ikasketak luzatzeko bekak. Epea: maiatzak 29.

* Laburmetraiak produzitzeko laguntzak ICCAk antolatua. Epea: ekainak 23.

GAZTE IKASTAROAK

* Irrati kontrol tailerra. Larunbatetan, arratsaldeko 4.00etatik 6.30ak arte. Arrasate irratan egingo da ikastaroa.

Matrikula 4.000 pta., 2.000 pta. ikasle eta langabetuentzat. Informazio gehiago, gazte bulegoan.

* Hastapen mailako salsa ikastaroa.

Maiatzaren 4tik ekainaren 3 arte.

Astelehen eta asteazkenetan, 7.30etatik 9.30etara. Matrikula 4.000 pta. / 2.500 pta. ikasle eta langabetuentzat. Izena emateko, Arrasateko Gazte Bulegoan.

* Gaur egungo dantza eta jazz dantza, hastapen maila. Maiatzaren 5ean hasi eta ekainaren 6 arte. Asteartetan 7.00etatik 9.00etara eta larunbatetan 5.00etatik 7.00etara. Matrikula, 5.000 pta. / 3.000 pta. ikasle edo langabetuentzat. Izen ematea, Arrasateko Gazte Bulegoan.

KIROL IKASTAROAK

* Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak, hainbat ikastaro antolatu du: Hastapena eta ziurtasuna goi mendian eta haitz eskalada ikastaroa. Informazio gehiago, Arrasateko Gazte Bulegoan.

LEHIAKETAK

* EHU-UPVk, urtero lez, Felix Ugarte itzulpen lehiaketa eta fantasi eta ipuin laburren lehiaketako oinarriak kaleratu ditu. Epea: maiatzak 15.

* Arrasateko Udalaren eskutik, San Juan Jaietarako kartel lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 22.

* Zumarraga eta Urretxuko Udalek urtero antolaruriko lehiaketa sorta martxan da jadanik:

+ Narratiba eta poesiako Iparragirre Saria, X. Komiki lehiaketa eta XIV. Bertso paper lehialetarako lanak aurkezteko epea: ekainak 19.

+ X. Pintura lehiaketa eta Argazki lehiaketa. Epea: irailak 11.

EGONALDIA ZERAINGO BARNETEGIAN**Uztailaren 1etik 15era**

MINTZAMEN ikastaroa. Ekintza osagarriak.

NORENTZAT: **gutxienez 5. urratsa** gainditu dutenentzat.

GIPUZKOAKO GOIERRIN: kultura, ondarea, giroa.

MANTENU OSOA: **37.000 ppta.**

IZEN EMATEA: maiatzaren 22 arte
INFORMAZIOA:

Udal Euskaltegian
Tfnoa: 792168



Industrias Olabarri, S.A.

Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxe: 34-43 - 714061



JANARI DENDA

Hidalga, 8
Tfnoa: 943 71 45 42

**GOLO
GAZTE
MODA**

Arana kalea, 13
Tfnoa.: 943 71 42 99

LIBURU GOMENDIOA**Beldurra pasa gura baduzu**

Beldurrezo ipuinak pil- pilean dauden garai honetan, gehienetan propagandak eta merkatuak bultzaturik, "Hotzikarak" bilduma, alegia; badago non aukeratu hain modan daudenak erosi gabe. "**Gauze ate datozenean**", bestek beste. Lau ipuinez osaturiko liburuxka da.

Jenero beltzeko lau ipuin. Beldurrezko lau ipuin eder. Laurak Galiziako lurraldeetan kokaturik: lehenengo hirurak nekazari girokoak, laugarrena, ordea, landan eta hirian kokatzen da. Idazleak hitzaurrean dioen moduan, istorio hauek berak txikitan aitaren ahotik entzundako istorioen fruitu dira. Tentsio "in crescendo" joango da. Bukaera gordinak daude eta kasu batean behintzat, esperozina. Istorioak nekazal giroan garatzen direnez aukera ederra izan daiteke erdi galdutako hainbat eta hainbat erreferentz jabetzeko.

Xabier Docampok liburu honekin 1995eko Haur eta Gazte Literaturako liburu onenaren Espainiako Sari Nazionala irabazi zuen.



**Gauze ate joka
datozenean**
Xabier P. Campo
Elkar (Branka saila)



23 urte dela ikastolan ateratako argazkia da honako hau. Ordutik asko hazi dira baina lepotik behera bakarrik.

Goiko iladan ezkerretik eskumara:

Jon Kortazar, Aitziber Zufiria, Josu Perez, Oscar Uribe-Etxebarria, Joseba Rielo, Fani Eizagirre, Javi García, Itsaso Altuna, Aperribai, Isasmendi, Iñigo Altuna.

Behean, ezkerretik eskumara:

Izaskun Agirregabiria, Miren Navarro, Maite Urzelai, Gaizka Larrañaga, Agurne Uribe-Etxebarria, Olatz Mediavilla, Itziar Belategi, Agurtzane Murua, Jon Apraiz, Edurne Uribesalgo.

LAGUNDU ZE BARRI EGITEN
Asteazkenetan 7retan Polikiroldegian
Publizitatea, deitu: 943 71 40 77

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure Zerbitzura

MIRENTXU
TABERNA

Tfnoa.: 943 714167

Kafe goxoa hartzeko

Pub ALDATZ

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

ESKO Sport



txandalak
zapatilak
mendiko botak
aerobic
futbola
txirrindua

Intxaurtxueta 5
20540 Eskoriatza
Tfnoa.: 943 71 52 96